

Elgoibar 1338. zenb.
XXXI. urtea - 2024/09/06



**Harrapatu gaitu
irailak**



ERABILI TXARTELA!!

Irailaren 6tik irailaren 30era.
Elgoibarko Txankakua
txartelarekin egindako lehenengo
erosketarekin euritakoa
izango duzu opari *.

*Eskaintza agortu arte.

Elgoibarko
bizi, erosi
herriak irabazi

TXANKAKUA
ELGOIBARKO MERKATUA



TXANKAKUA
ELGOIBARKO MERKATUARIK

Euskadi,
auzolana



TXANKAKUA

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet

Izaro Etxegibel Soraluze Euskara teknikaria

Brist



***"Horrenbeste ur artean
itotzeko beldurrik
ez ote duen
galdetu dio bakarrik,
bera lehorrekoa dela"***

Oporretan gurasoen herrian izan dela esan du batek, fruta dendako ilaran. Haren hitzetan, ez ei dago horiek baino opor hoberik. Ez nuen entzuten jarraitu nahi, baina jakin-mina piztu dit gizonaren afanak. Aitona-amonek herentzian utzitako etxea eta terrenoak nola dauden ikusteko eta ingurua apur bat atontzeko aitzakiarekin joaten direla, gustora ibiltzen direla han, familiakoak ikusi, txikitako lagunak, herriko tabernan diru apur bat utzi eta udal igerilekuan igarotzen dutela eguna sarritan. Hiriburua ere gertu dutela, eta herrian aspertzen direnean hantxe topatzen dutela dibertimendua: urdaizpikoa jan eta zerbeza edan. Beste ezagun bat ere han egon dela esan du, gurasoak bertakoak dituela eta; laster nazkatzen direla haiek, baina, eta aguro egin zutela hanka handik, Mediterraneo aldera edo. Ez omen dakite zer den ona.

Mediterraneoan zehar kruzeroan ibili dela esan nahi dio solaskideak, besteak itsasoaren izena aipatu duenez gero. Halako batean, berbetan utzi dionean: Bartzelona, Marsella, Genova, Roma, Messina, Malta. Zortzi egun, nahi beste jan, edan, etzanda egon eta turista antzean ibili gau eta egun. Horrenbeste ur artean itotzeko beldurrik ez ote duen galdetu dio bakarrik, bera lehorrekoa dela.

Pentsatu dut esango niokeela Mediterraneoako hondartza batetik buiaraino igerian joan naizela egunero, eta globo hori erraldoi haren gainean egoten zen kaiok beldur handiagoa ematen zidala itsasoaren sakon ilunak baino.

Udara bakoitza bitzta txiki bat bezalakoa dela idatzi berri du Jon Maiak. Ezin da politago esan, hobeto adierazi. Badoa aurtengoa ere "... konturatzerako... brist.. ilunabarreko haize freskoak lepo ondoan laztantxo batekin xuxurlatzen dizu badoala... eta oilo azal beltzarani begira pentsatzen duzu denbora zein azkar pasatzen den".

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Euskal herriarentzat nolako Estatu bat nahi dugu?

Bagira prozesuaren emaitza, *Herri bidea* bide-orria izan zen. Bide-orri honetan, abertzaleen helburua herriari boterea itzultzea dela aipatzen da, eta boterea itzultzeko, herriari burujabetza maila maximoa emanen dioten instituzioak herriari eskaintzea adierazten da. Zehazten da ere, herri baten burujabetza maila maximoa, Estatu independente baten bitartez lortzen dela. Horrez gain, mugimendu abertzalea demokraziari atxikia dela goraipatzen da.

Bagira prozesua bukatu zen, baina prozesuaren kudeaketa taldeak Aberri Egunean egin zuen *Herri bidearen* aurkezpenean, bide-orri honetan agertzen diren gogoetak sakondu beharko direla adierazi zuen.

Horiek hola, *Bagira* prozesuan parte hartu duten Nafarroa Behereko zazpi abertzalek, euskal herriarentzat nolako Estatu bat nahi dugun gogoetatuko duen prozesu bat abian ezarri dute ekainean, nahi duten euskal herritar guzietatik irekia dena, *Bagira* prozesuan parte hartu dutenei eta ez dutenei.

Gogoetak, herriari boterea itzuliko dioten instituzioak nolakoak lirakeen zehaztuko du. Beste molde batez adierazteko, gogoetak, independentistek euskal herriarentzat nahi dugun Estatuak egiazko demokrazia, hau da egiazko herri boterea, nola gauzatuko lukeen zehaztuko du.

Prozesu berri honen lehen bilkura publikoa, irailaren 8an, igandez, goizeko 11etan, Donibane Garaziko merkatuan egingen dugu. Interesatua den oro bilkura horretan parte hartzera gomitatzen dugu. Bilkuraren ondotik, bakoitzak etxetik ekarritako janariarekin elgarrekin bazkalduko dugu.

Gorka Torre eta Eneko Bidegain

Aizu, Gazak hor jarraitzen duela!

UNRWA, OMS eta UNICEFko bozeramaileek jakinarazi dutenez, 200 talde baino gehiago

ari dira polioari aurre egiteko txertoa ematen Gaza erdialdeko 25 lekutan. Kanpainaren helburua 640.000 haur immunizatzea da, polioaren berpiztea geldiarazteko. Duela 25 urte desagerrarazi zuten gaixotasun hori Gazatik, eta osasun zerbitzuen etenaldiaren eta gazatarrek gerra hasi zenetik pairatzen dituzten baldintza osasungaitzen erdian itzuli da.

Gazako polio-agerraldia gelditzeko eta birusaren nazioarteko hedapena saihesteko, osasun-langileek gutxienez haurren %90ri jarri beharko diete txertoa immunizazio-eskemaren bi txandetako bakoitzean. Bigarren hartualdia lehenengoa hartu eta 30 egunera emango da.

Txertaketa egiten den bitartean, inplikaturako erakundeek eta NBEko goi agintariek, osasun arloko langileak eta Gazako herritarrak segurtasun baldintzetan mugitzearen garrantzia azpimarratu dute. Horrek funtziona dezan, gatazkan dauden alde guztiek errespetatu egin behar dituzte arlo elektrikoetako aldi baterako etenaldiak.

Ez daukat hitzik edo kalifikaziorik han gertatzen ari dena deskribatzeko. Konturatzerako (inork ez badio genozidio honi amaiera ematen), Gaza historia beltz bat izango da gizateriaren lotsarako. Bitartean, egiten diren deialdietan parte hartu, eta ahal den neurrian laguntza ematen jarraituko dugu. Genozidioari stop!

A.I.Z



I. URTEURRENA

Maria Jesusa Cortaberria Ansola

2023ko abuztuaren 26an hil zen, 88 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, irailaren 8an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zareteneoi, alde zurretik eskerrak.




I. URTEURRENA

Ana Hidalgo Maturana

2023ko irailaren 2an hil zen, 57 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, irailaren 8an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zareteneoi, alde zurretik eskerrak.

Ana maitea.
Eskerrik asko emandako denbora eta
une zoriontsuengatik.
Arrasto ezabaezina utzi diguzu.
Beti egongo zara gure bihotzetan.

Etxekoak



Eskertzak eta urteurrenak

Barren astekarian eta *barren.eus* webgunean.

 **943 743 704 / 943 744 112**

 **688 769 657**

 **barren.publi@elgoibarkoizarra.eus**

 **Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk**

San Antolin jaiak ospatuko dituzte asteburuan Arriagan

Meza eta prozesioa egin zituzten astelehenean, San Antolin Egunean, Arriaga auzoan eta asteburuan jarraituko du festak. Tradizio bilakatu diren oliba-hezur eta txapel jaurtitze txapelketak izango dira gaur arratsaldean, eta bertso afaria gauean. Bihar, berriz, herri kirolak izango dira nagusi, eta gauean erromeria egongo da, Kitziki taldearekin. Egitarau osoa agendan duzue ikusgai.



Helduen Hezkuntza Eskolan izena emateko aukera egongo da Mendaron

Azken ikasturtean Mendaroko dozena bat herritarrek egin zuten Helduen Hezkuntza inguruko herrietan, eta mendarotarren beharrak eta eskaria ikusita, taldea osatuz gero Mendaron bertan emango dituzte eskolak aurten. Espainiera ikasteko eskolak ematen dituzte, hasierako maila eta aurreratua.

Bi egun jarri dituzte izena emateko: irailaren 4a izan zen lehenengoa, eta irailaren 11a izango da bigarrena. 15:00etatik 18:00etara eman ahal izango da izena, udaletxean. Informazio gehiagorako 943 208 856 edo 673 118 181 telefonora deitu daiteke.

Aisialdirako begirale ikastaroa emango dute Debabarrenean

Debabarreneko udalek (Elgoibar, Mendaro, Soraluze, Eibar, Deba eta Mutriku) Aisialdiko Begirale titulua eskuratzeko ikastaroa antolatu dute Gaztetxo Eskolarekin elkarlanean. Eskolak urritik ekainera bitartean izango dira, zapatuetan (9:30-18:30), eta izena ematen dutenen arabera erabakiko dute eskolak Eibarren ala Elgoibarren izango diren. Ikastaroa euskaraz izango da, eta ikasleek gutxienez, 18 urte izan beharko dituzte atal teorikoa amaitzen denerako, hau da, 2025eko ekainaren 30erako. 150 orduko atal teorikoa izango du batetik, eta horrez gain 160 praktika ordu egin beharko dira. Zapatuetako eskolez gain, asteburuko hiru egonaldi egingo dituzte La Arboledako aterpetxean. Ikastaroaren prezioa 294,5 eurokoa da baina Debabarrenean erroldatuta daudenek matrikularen erdia ordainduko dute. Izena emateko azken eguna irailaren 20a izango da: labur.eus/debabarrenabegirale. Informazio gehiagorako 943 708 426 telefonora deitu daiteke.

Sallobenteko jaietan zozkatutako otarrak badauka jabea



1.200 euroko balioa duten produktuz beteriko otarra zozkatu zuten Sallobenteko jaietan, eta 61.957 zenbakiarekin Begoña Juaristi izan da irabazlea.

Euskal Herriko eskubaloi jokalariai gaztetxoan topalekua izango da Elgoibar asteburuan

Kadete mailako 300dik gora eskubaloi jokalariai batuko dira Elgoibarren asteburuan, Gojko Vucinic Elgoibar Hiribildua txapelketaren seigarren edizioan parte hartzeko. Gipuzkoa, Bizkai eta Nafarroako hamar taldek hartuko dute parte Sanlok antolatzen duen Gojko Vucinicen oroimenezko eskubaloi txapelketan: Hamar taldeetako neska-mutilak barikutik domekara arituko dira lehian. Nesken taldeek Olaizagako kantxan jokatuko dituzte partidak eta IMH kiroldegikoan mutilenek. Hauek dira parte hartuko dute taldeak: Eibar Eskubaloia (Eibar), Sanlo EKT (Elgoibar), Pulpo (Zumaiia), Ereintza (Errenteria), Malkaitz (Atarrabia), Urola (Zumarraga), Anaitasuna (Iruñea), Errotaberri (Ermua), Tolosa Eskubaloia (Tolosa) eta C.D. Urdaneta (Loiu). Barikuan, irailak 6, hasiko da txapelketa. Lehen egunean 18:30etik 20:00etara jokatuko dituzte neurketak. Zapatuan 9:00etan, 11:00etan eta 12:30ean jokatuko dituzte



partidak; eta, arratsaldean, 16:00etan, 17:30ean eta 19:00etan. Azken jardunaldian, domekan, hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeke partidak jokatuko dituzte, 9:00etan eta 10:15ean, eta finalak, 11:30ean eta 12:45ean izango dira, Olaizaga kiroldegiko kantxan. Bosgarrengotik zortzigarrengorako sailkapena erabakitzeke neurketak IMHn jokatuko dituzte, finalen ordutegi berean. Sari banaketa Olaizagan izango da.

Bihar jokatuko dute Lizagasar erronkaren bigarren edizioa

Lizagasar Sagartokixak eta CATT Morkaiko taldeak sagastietan barrena jokatzen den lasterketa berezia antolatu zuten iaz, estreinakoz, eta bihar jokatuko dute bigarrengoz Lizagasarreko upeltegi berriaren inaugurazio egunarekin bat egiteko hilabetez aurreratu dute proba CATT Morkaikokoek, eta egun osorako egitaraua prestatu dute. 12:00etan irekiko dituzte Lizagasarreko ateak eta upeltegi berria bisitatzeko aukera izango dute gerturatzen direnek. Kirol erronka arratsaldean izango da. 17:30etik aurrera egingo dute dortsal banaketa eta 18:30ean jokatuko dute erronka. CATT Morkaiko taldeko kideak bakarrik lehiatuko dira, eta aurten Mendaroko Lizarpe mendi taldeko kideak ere gongidatu dituzte parte hartzera. Era berean, zortzi urtera arteko neska-mutilentzako proba ere izango da, 18:45ean. Sari banaketa ekitaldia 20:15ean egingo dute, eta ondoren pintxopotea hasiko dute, txaranga doinuek girotuta. Lizagasarren 60 sagasti sail daude, 30



aldapan gora eta beste 30 aldapan behera, eta horietan arituko dira antxitxika parte hartzaileak 8 kilometroko ibilbidean. Desnibel positiboa 750 bat metrokoa izango da.

23

San Bartolome bezpera











Softlan

Albitxuri Industrialdea, 3i
943 748 105

info@softlan.biz - <https://eu.softlan.eus/>

Gestio programetan
gaude espezializatuak.
Software ezberdinak dauzkagu.



Fotodepilazioa
egiten dugu

Santa Ana, 18 - Elgoibar
943 741 864



MAPFRE 943 740 582

San Frantzisko, 40, behea - patxiza@mapfre.com



**AUTO ETA MOTORREN ASEGURUAK ■ ETXE-ASEGURUAK
OSASUN-ASEGURUAK ■ ERRETIRO-ASEGURUAK ■ FAMILIAREN BABESA**



MURUA GOZOTEGIA
KALITATEKO GOSARIA!

☎ 943 73 22 39

**DOMINIA
MERCEDES**



IL ZAPORE
**ZURE PIZZAK!
ZURE ETXEAN!**

☎ 943 28 25 37



GOURMET DENDA
PRIMERAKO PRODUKTUAK!

☎ 943 74 26 52



24

San Bartolome eguna







IKASTURTE OSOAREN PREZIOA: 72,36€

Ikastaro ERDIPRESENTZIALAK:
egun bat eskolan +
lan pertsonala
MOODLE plataforman

ARRASATEN eta AZKOITIAN
gela desplazatuak

Matrikula:
Irailaren 2tik 17ra

On-line
IKASGUNEA
plataformaren bitartez



Informazio gehiago:
Otaola hiribidea 29 EIBAR
eoeibarheos@gmail.com
943899275




eoeibarheo



www.eoeibarheo.hezkuntza.net

DEUTSCH - ENGLISH - EUSKARA - FRANÇAIS



Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar - 943 740 359

www.uzurioptika.com



WOOW EYEWEAR

*Bizitza
laburregia da
betaurreko aspergarriak
eramateko.*

*Ikusi
gure bilduma
berria!*



WOOW EYEWEAR

lizardi

INGENIERÍA
DISEÑO
CONTROL





25

Jubilatuen eta umeen eguna









ASESORIA
GOAR

**KONTABILITATEA
AHOLKULARITZA FISKALA
ASESORIA LABORALA**

San Bartolome, 2 beheha - Elgoibar Tel: 943 742 674 / 943 740 234
asesoria@asesoriagoar.com Faxa: 943 742 129

**Eskolara buelta
prest?**



KARKIZANO



Olaso kalea, 15 - Elgoibar


*Irailaren hasiera
ondo hasteko
ekarri zure autoa gurera
eta distiratsu
utziko dizugu!!*

660 912 542

www.elgokar.com



[instagram.com/elgokar.autogarbiketak](https://www.instagram.com/elgokar.autogarbiketak)



MILA ESKER!

35 urte egin ditut Garbiñe estetikan lanean eta iritsi zait agur esateko garaia, baina ez nuke laga nahi urte guzti hauetan bezero eta bidelagun izan zaituztedanoi eskerrak eman gabe. Zuek gabe proiektu honek ez zuen zentzurik izango, zuek gabe ezingo nituen horrenbeste urte bete lanbide honetan. Babes handia izan zarete niretzat eta ez dago bizitzan hori baino gauza handiagorik.

Estetikako etapa amaituta, beste bide bat hartuko dut orain, baina gertu izango nauzue gero ere. Mila esker, beraz, bihotz-bihotzez, Garbiñe estetikako bezero izan zareten gurtioi.



26

Txiki eguna






















30

Nerabeen eta gazteen eguna











31

Baserritarren eguna










Sokamuturra









6 BARIKUA

19:00 Argazki erakusketa: Jon Andoni argazkilariak bere lanak jarriko ditu ikusgai Kultur Etxeko erakusketa gelan. Ongarri Argazki Taldeak antolatuta, irailaren 21era arte egongo da ikusgai, astelehenetik zapatara, 18:30etik 20:30era.

7 ZAPATUA

12:00 Lehiaketa gastronomikoa: Arroza oilaskoarekin. Bikote irabazleak biltokien arteko finalean hartuko du parte Legazpin, irailaren 21ean. Jubilatuen Biltokiak antolatuta, Maalako parkean.

SAN ANTOLIN JAIK

IRAILAK 6, BARIKUA

18:30 Txapel eta oliba hezur jaurtiketa.

20:00 Bertso kalejira.

21:00 Bertso afaria Iker Zubeldia, Julio Soto eta Xabat Illarregirekin. Afaritarako tiketak salgai daude. Aurrez 30 euro; egunean bertan 35. 649 445 552 edo 675 702 952 telefonoetan eskatu daitezke irailaren 3ra arte.

Ondoren, musika, karpa itxi arte.

IRAILAK 7, ZAPATUA

14:00 Paella jana. (15 euro)

Ondoren, bingoa.

10 MARTITZENA

17:00 Ongizate tailerreraren aurkezpena.

Maria Eugenia Arregi Porrás psikologoa izango da hizlaria. Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak eta Ongizate Sailak antolatuta, Jubilatuen Biltokian izango da.

13 BARIKUA

16:30 Odol ateratzea, Jubilatuen Biltokian.

Txanda hartzeko: 623 328 408 (eguztinetik aurrera).

16:30 Mus txapelketa.

17:00 Umeentzako merienda.

17:30 Tortilla txapelketa.

18:00 Herri kirolak: Ane Ituarte, Karmele Gisasola, Mikel Agirre eta Unai Osa. Ondoren, txinga eramate parte-hartzailea eta pulstu txapelketa sariekin.

21:00 Afaria, Euskal Parrillaren eskutik.

23:00 Erromeria, Kitziki taldearekin.

01:00 Txokolatada eta errifaren zozketa

Ondoren, musika, karpa itxi arte.

Zapatuan autobus zerbitzua egongo da Txarridunako errotondatik, 17:00etatik 02:00etara

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Fincas Euzkoako Finika Administrazioaren Errealde Kontsekoa</p>  <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Gure komunitatean obra batzuk egin dira, eta dirulaguntza jaso dugu horretarako. Obra hori egiteko dirua, baina, etxejabeek aurreratu genuen. Orain, dirulaguntza iritsi zaigunean, aurreratu genuen diru hori banatzea erabaki dugu. Tarte horretan, baina, dirua jarri zuen etxejabeetako batek etxebizitza saldu du, eta jakin nahiko nuke diru hori nori eman behar diogun: etxejabe horri ala etxejabe berriari.</p> <p>Lehenengo eta behin, azalpen bat. Komunitateko kontuan sartzen dugun dirua, izan dirulaguntza bat edo izan geuk aurreratu dugun dirua, komunitatearena da, eta diru hori etxejabeen artean banatzeko jakiekideen batzarraren onespina beharko da ezinbestean. Beraz, obra hori egin ezean ere inork ez du bere kabuz dirua itzultzeko eskatzeko eskubiderik. Kasu horretan ere dirua komunitatearena izango da, eta jakiekideek eurek erabaki beharko dute diru hori banatu edo beste zerbaitean inbertitzea. Beraz, une horretan etxejabea denak ordaindu beharreko kuotak ordaintzeko betebeharrak dauka, baina onurak ere berak jasoko ditu. Etxea erosten den unean bertan egiten ditu bere etxejabe berriak eskubideak eta betebeharrak.</p> <p>AHOLKUA: Izatekotan ere, dirua aurreratu zuen etxejabe horrek etxejabe berriaren kontra egin dezake eta aurreratu zuen dirua itzultzeko eskatu, baina komunitatea ez da ezerean erantzule izango kasu horretan. Komunitateak etxejabe berriari eman beharko diolako dirua.</p> <p>ASERENA GOAR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	--

LIZAGASAR ERRONKA

Irailak 7, zapatua

12:00 - 14:00 Upategi berriaren inaugurazio irekia. Instalazioak bisitatu eta produktuak dastatzeko aukera egongo da.

17:30 Sagartokiaren irekiera eta erronkarako dortsal banaketa.

18:30 Erronkaren hasiera. 8 kilometroko ibilbidea egin beharko dute partaideek, sagastian gora eta behera, 750 metroko desnibel positiboa gaindituz.

18:45 Txiki erronka (8 urtera arteko umeentzat).

20:15 Sari banaketa.

Segidan, pintxopote eta txaranga.

21:30 Itxiera eta partaideentzako afaria.

2024ko botika ordutegiak: 09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

IRAILA

6 BARIKUA
7 ZAPATUA
8 DOMEKA
9 ASTELEHENA
10 MARTITZENA
11 EGUAZTENA
12 EGUENA
13 BARIKUA

Egunez

Arriola
■ Fernandez / ■ Yudego
■ Fernandez
Yudego
■ Oruesagasti
Barrenetxea
■ Soto
Garitaonandia

2024 urte guztian, gauzez.
Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi , 31 (Eibar)
943 204 230

■ Fernandez:
Herriko Enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

■ Soto
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

■ Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

**Zabaldu atea BARREN astekariari,
eta egin zaitez harpidedun!**

Aspaldi bazabiltza **BARREN** etxeko buzoian jaso nahian edo jaso nahi lukeen beste norbait ezagutzen baldin baduzu, oraintxe duzu aukera. Deitu, idatzi edo etorri bulegora.



943 744 112

barren@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.



Azken egunak!

LAGUNAK
colchoneria textil hogar

OHE-IZARETAN ESKAINTZA ZABALA

%50 poliesterra eta %50 kotoia duten ohe-izarak 18€tik aurrera
(neurri guztiak: 80 zm-tik 2 m-ra)

%100 Kotoia duten ohe-izarak 25 €tik aurrera

Ez galdu aukera paregabe hau! Bisita gaitzazu!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

Revert
Eibarbus
grupo **JonAnder**

www.grupojonander.com

jonander@jonander.com - eibarbus@eibarbus.com

943 201 733



urkotronik

URKOTRONIK VENDING S.L. **943 203 112**

urkotronik@urkotronik.com



Mekanizazio lanak



Fabrikazio qehigarria



Termoplastiko eta konpositeetan adituak

GYS SPORT **CASA ELGOIBAR**
ASTIGARRAGA

Errosario, 18
943 743 268

24/25 denboraldi berria!



EXPRESS ESKAINTZAK!

AEG L7FEE842S
ARROPA GARBIGAILUA

A T G **B**

649 €



- 8 KG karga
- 1400 b/min
- Protex danborra
- Prosense Teknologia
- Woolmark ziurtagarria
- ProsSteam lurrun-programa

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

GBT24

GIPUZKOAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA
2024

IRAILAK 14 - ABENDUAK 14

Antolatzailea: Laguntzailea:

www.bertsozale.eus/gipuzkoakotxapelketa
www.bertsosarrerak.eus



'barren

INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES



CAMPUS

*Azken plazak!
Matrikula zaitetz!*



**INGELES
FRANTSESA
ALEMANA**

IRAILTIK HASITA 2024-2025 KURTSOKO IKASTAROAK

Maila guztiak.
Titulu ofizialak.
Esperientzia duten jatorrizko irakasleak.
Ikastaroak atzerrian.
Multimedia gela.
Haurrak eta gazteak 4 urtetik aurrera.

ENPRESA ITZULPEN ETA INTERPRETazio ZERBITZUAK



688 679356



943 744040



ils@imh.eus



www.ils.es

Gora Elgoibar!



**eaj
pnv**

